ayuntamiento de lasarte-oriako udala

# kontzertuak
# conciertos

2001ean "La sombra del sol" taldea desegin zenean, bertako kideak ziren Esteban eta Juanjok "Destino Norte" musika taldea sortu zuten. Taldea bi partaidek osatzen dute: Esteban G. (gitarra) eta J.J. Niebla (ahotsa). Biak, musikari eta honen inguruko munduari eman diote bizitza. Hasierako urte hauetan, hanka sartuz ikasi dute ekinaren ekinez ametsak eskuratu egin daitezkeela. Diskoa grabatu izana da horren adierazgarri.

Nahiz eta lehendabizikoa izan, ez pentsa adituak ez direnik. "Empezar de cero" urte askotako lana da; konposizio eta konponketan emandako urte ugariren emaitza. Produkzio garbi eta freskoa da, estilo ezberdineko ezaugarriak dituen popa. Destino Norte azken finean.



Destino Norte es una formación musical formada a finales del año 2001 consecuencia de la rotura del grupo en el que antes militaban Esteban y Juanjo, "La sombra del sol". La formación está compuesta por dos componentes, Esteban G. (guitarra) y por JJ. Niebla (voz). Ambos han dedicado la mayoría de su corta vida a la música y al mundo que la rodea, pero en estos años de principios y de meteduras de pata han aprendido que la constancia y el tesón pueden hacer realidad cualquier sueño, en este caso grabar un disco.

Es el primero que sacan al mercado y esto puede llevar a la conclusión de ser inexpertos en sus temas, pero en este caso "Empezar de Cero" suena a años de dedicación, a años de composiciones y de arreglos, suena a una producción limpia y fresca, suena a pop con rasgos de distinto estilos, suena a Destino Norte.



## destino norte

Irailak 20 Septiembre · 22:00
Casa de Cultura Manuel Lekuona Kultur Etxea

Gazteria eta Festa Batzordea
Comisión de Juventud y Festejos

# enplegua
# empleo

## Lan bila zabiltza?

Goiko galderari baietz erantzun badiozu, hemen duzu lantokia lortzeko aukera on bat. Gazteentzako Informazioaren Udal Bulegoan inon aurki dezakezun enplegu-eskaintzarik handiena dugu. Edozer bilatzen duzula ere, zure prestakuntza eta trebakuntza edozein delarik ere, guk lagun diezazukegu lantokia aurkitzen. Enplegu pribatua zein enplegu publikoa, prestakuntza eta esperientzia handiko lanpostuak nahiz prestakuntza beharrik gabeko lanak. Seguru lagun diezazukegula. Horretarako, nahikoa duzu gure Bulegora etortzea eta kontsultatzea eskueran jarriko dizkizugun dosierrak, zabalak eta astero berritzen ditugunak. Eta, noski, zerbitzu hori guztiz dohainik da. Ez galdu aukera!

## ¿Buscas trabajo?

Si has respondido sí a la pregunta de arriba, aquí tienes una buena oportunidad para conseguirlo. En la Oficina Municipal de Información Juvenil tenemos la mayor oferta de empleo que puedes encontrar. Busques lo que busques, sea cual sea tu formación y preparación, nosotros podemos ayudarte a encontrar empleo. Desde empleo privado a empleo público, desde puestos de alta cualificación y experiencia hasta trabajos sin cualificar. Seguro que podemos ayudarte. Lo único que debes hacer, es pasarte por nuestra Oficina y consulta los amplios dossieres que ponemos a tu disposición y que renovamos semanalmente. Y, por supuesto, este es un servicio absolutamente gratuito. No te lo pierdas.

# sarea
# red

## Gazteentzako Dokumentazioren eta Informazioaren Euskadiko Sarea

**Lasarte-Oriako Gazteak Informatzeko Udal Bulegoa, Gazteentzako Dokumentazioaren eta Informazioaren Euskadiko Sarearen** barruan dagoen doako zerbitzu publikoa da, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko sarea osatzen duten berrogeita hamar zerbitzu inguruen zati dena.
Gure helburua, gazteentzako interesgarri izan daitekeen eta lanarekin, heziketarekin, aisialdiarekin, astialdiarekin eta abarrekin zerikusia duen informazio oro gazteengana hurbilaraztea da.
Informazio hori, Kultur Etxeko bigarren solairuan dagoen bulegoan jendea zuzenean atenditaz, telefonoz eta posta elektroniko bidez zabaltzen da. Horrez gain, norberak kontsultak egiteko zerbitzua ere badu, gazteei gehien interesatzen zaizkien gaiak lantzeko aukera ematen duena.
Gazteentzako Dokumentazioaren eta Informazioaren Euskadiko Sarearen web gunea honako hau da: www.gazteinformazioa.net

## Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi

La **Oficina Municipal de Información Juvenil de Lasarte-Oria** es un servicio público y gratuito que pertenece a la **Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi** y que, en colaboración con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, forma parte de los, aproximadamente, cincuenta servicios que completan la red en la Comunidad Autónoma Vasca.
Nuestra finalidad es acercar a las personas jóvenes toda aquella información que pueda ser de su interés y que tenga que ver con el mundo del trabajo, la educación, el ocio, tiempo libre...
Dicha información se difunde mediante la atención directa al público en la oficina situada en la segunda planta de la Casa de Cultura Manuel Lekuona, y a través de vía telefónica o por correo electrónico. Además, dispone de un servicio de autoconsulta en el que las personas jóvenes pueden trabajar directamente los temas que más les interesan.
El sitio web de la Red de Información y Documentación Juvenil de Euskadi es www.gazteinformazioa.net

gazte informazioa

# ordutegiak
# horarios

gazteen informaziorako udal bulegoa
oficina municipal de informacion juvenil

Astelehenetik ostiralera Lunes a viernes 11:00-13:00/17:00-20:00

**Casa de Cultura MANUEL LEKUONA Kultur Etxea**
Geltoki 18 - 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 61 81/91 - Fax: 943 37 61 92
gazteinfo@lasarte-oria.org
www.lasarte-oria.org

gazte informazioa
# orrigorri
no. 70. zk.

septiembre/octubre iraila/urria 2002




CASA DE CULTURA MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIAKO UDALA

lasarte-oria
www.lasarte-oria.org

casa de cultura manuel lekuona kultur etxea

Ayuntamiento de Lasarte-Oria · Lasarte-Oriako Udala

# bekak / becas

## UNIBERTSITATE-IKASKETETARAKO ETA UNIBERTSITATEKOAK EZ DIRENETARAKO BEKAK, 2002/2003. IKASTURTEA
## BECAS PARA ESTUDIOS NO UNIVERSITARIOS Y UNIVERSITARIOS PARA EL CURSO 2002/2003

**Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa**
Tfno. 917018500
www.mecd.es

**Baldintza orokorrak:**
-1987ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaioa izatea.
-Familia-errentako baldintzak.
**Ezaugarr.:**
2002/2003 ikasturterako izaera orokorreko bekak eta laguntzak, ikasketak beren autonomia-erkidegoan egiten dituzten derrigorrezko irakaskuntzaren ondorengo mailetako ikasleentzat, unibertsitatekoak ez direnentzat nahiz unibertsitatekoak direnentzat.
**Epea:**
Urriak 31.

**Ministerio de Educación, Cultura y Deporte**
Tfno. 917018500
www.mecd.es

**Requisitos de carácter general:**
-Haber nacido antes del 1 de enero de 1987.
-Requisitos de renta familiar.
**Contenido:**
Becas y ayudas al estudio de carácter general, para el curso académico 2002/2003, para alumnos de niveles postobligatorios no universitarios y para universitarios que cursan estudios en su Comunidad Autónoma.
**Plazo:**
31 de octubre.

## IKASKETAK BEREN ERKIDEGOTIK KANPO EGITEN DITUZTEN UNIBERTSITATEKO IKASLEENTZAT MUGIKORTASUN-BEKAK
## BECAS DE MOVILIDAD PARA ALUMNOS UNIVERSITARIOS QUE CURSAN FUERA DE SU COMUNIDAD AUTÓNOMA

**Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa**
Tfno. 917018500
www.mecd.es

**Eskakizun:**
Unibertsitateko eta goi-mailako ikasketetako ikasleak, 2002/2003 ikasturtean zehar, presentziazko ikasketak haien familiaren etxea kokatua dagoen autonomia-erkidegotik kanpo egingo dituztenak.
**Ezaugarr.:**
2002/2003 ikasturterako mugikortasun-bekak, ikasketak beren autonomia-erkidegotik kanpo egingo dituzten ikasleentzat.
**Epea:**
Urriak 31.

**Ministerio de Educación, Cultura y Deporte**
Tfno. 917018500
www.mecd.es

**Requisitos:**
Los estudiantes universitarios y de estudios superiores que, durante el curso académico 2002/2003, cursen estudios presenciales en centros ubicados en Comunidad Autónoma distinta a la de su domicilio familiar.
**Contenido:**
Becas de movilidad, para el curso 2002/2003, para los alumnos universitarios que cursan estudios fuera de su comunidad autónoma.
**Plazo:**
31 octubre.

## BEKA-ASTEKARIA
## DOSSIER SEMANAL DE BECAS

**Lasarte-Oriako Gazteen Informaziorako Udal Bulegoa**
Tfno.: 943 376181/2

Zure prestakuntza edota esperientzia gehitzeko laguntzarik behar baduzu, GIBn beken dossier berri bat daukagu. Bertan hainbat beka lortzeko baldintzak kontzultatu ahal izango dituzu. Dossierra astero berrituko da, eta heziketa-mailaren eta bekaren helburuaren arabera dago sailkatua, beraz komeni zaizun bekaren informazioa oso azkar eta eguneratua aurkitu dezakezu.

**Oficina Municipal de Información Juvenil de Lasarte-Oria**
Tfno.: 943 376181/2

Si buscas complementar tu formación y/o experiencia mediante una ayuda, la OIJ dispone de un nuevo dossier en el que podrás consultar las condiciones para optar a numerosas becas. El dossier se renovará semanalmente y está clasificado por el nivel formativo y objeto de la beca, con lo que tienes a tu disposición una búsqueda rápida y actualizada de la beca que te interesa.

# bekak / becas

## 2002-2003 IKASTURTEAN UNIBERTSITATEKO ETA GOI-MAILAKO BESTELAKO IKASKETAK EGITEKO IZAERA OROKORREKO BEKAK
## BECAS DE CARÁCTER GENERAL PARA REALIZAR ESTUDIOS UNIVERSITARIOS Y OTROS ESTUDIOS SUPERIORES PARA EL CURSO 2002/2003

**Eusko Jaurlaritza**
Tel.: 945 018303 / 945 018299
huisaalu@ej-gv.es

**Eskakizun.:**
Administrazio-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan izanik, baldintza akademiko eta ekonomiko jakin batzuk bete eta unibertsitateko ikasketak edo titulu ofizial bat lortzeko bestelako goi-mailako ikasketak Autonomia Erkidego honen lurraldesparruan edo Estatuko gainerako lurraldeetan egiten dituzten ikasleak.
**Ezaugarr.:**
Beka hauek dira, baliabide ekonomiko urriak eta ikasketa-errendimendu onak izanik, 2002/2003 ikasturtean EAEko edo estatuko edozein ikastegitan ikastera doazen ikasleentzat .
**Epea:**
Epe orokorra 2002-10-15a artekoa izango da.
**Informaz.:**
Eskabide orriak ikasketak egingo diren ikastegian, Sailaren lurralde-ordezkaritzetan edo ondoko web-orrian jaso daitezke:
http://www.hezkuntza.ej-gv.net

**Gobierno Vasco**
Tel.: 945 018303 / 945 018299
huisaalu@ej-gv.es

**Requisitos:**
Estudiantes con vecindad administrativa en el País Vasco que reuniendo determinados requisitos académicos y económicos realicen estudios universitarios u otros estudios superiores conducentes a una titulación oficial reconocida, en cualquier centro ubicado en el ámbito territorial de esta Comunidad Autónoma o del resto del Estado.
**Contenido:**
Se convocan estas becas para los estudiantes de enseñanza superior, con insuficiencia de medios económicos y rendimientos académicos aceptables, que durante el curso académico 200/2003 vayan a realizar estudios en cualquier centro de la CAPV o del resto del Estado.
**Plazo:**
El plazo general será hasta el 15-10-2002.
**Informac.:**
Las solicitudes podrán recogerse en el centro donde la persona vaya a cursar los estudios, en las delegaciones territoriales del Departamento o en:
http://www.hezkuntza.ej-gv.net

## EROSKI TALDEAREN 3 IKERKETA-BEKA
## 3 BECAS DE INVESTIGACIÓN DEL GRUPO EROSKI

**Fundación Grupo Eroski**
info@fundaciongrupoeroski.es
www.fundaciongrupoeroski.es

**Ezaugarr.:** Goi-mailako eskola tekniko batek emandako lizentziatu edo ingeniariaren titulua lortzeko beharrezko irakasgaiak gaindituta izatea. Ikasketek 1995eko ekainaz geroztik amaitutakoak izan behar dute.
**Iraupena:** Urtebete esleipenaren datatik hasita. Urtero luzatu ahal izango da, baina gehienez ere hiru urtez.
**Diru-kopurua:** 6.010 euro bekako.
**Ezaugarr.:** Hiru ikerketa-beka ondorengo arloetako goi-mailako tituludunentzat: Bioetika eta enpresa, nutrizioa eta osasuna, eta Elikadura eta segurtasuna. Beken laguntzaz egin bhearreko lanaren gaiak zerikusia izan behar du elikaduraren, nutrizioaren, osasunaren eta bioetikaren eremuko oinarrizko ikerketarekin edo ikerketa epidemiologiko, kliniko edo teknologikoarekin. Lanaren zuzendari izan liteke proiektua egiteko ikerketa-zentroarekin lotura iraunkorra duen edozein doktore. Doktore horrek bertako ikerketa-taldeko kide izan behar du eta proiektua gauzatu ahal izateko finantziazioa egiaztatu beharko du.
**Epea:** 2002-09-14

**Fundación Grupo Eroski**
info@fundaciongrupoeroski.es
www.fundaciongrupoeroski.es

**Requisitos:** Tener el título de licenciado o de ingeniero por una escuela técnica superior. La fecha de fin de estudios debe ser junio de 1996, o posterior.
**Duración:** 1 año a partir de la fecha de adjudicación, prorrogable por períodos anuales hasta un máximo de tres años.
**Dotación:** 6.010 euros para cada beca.
**Contenido:** Tres becas de investigación para titulados superiores en las siguiente áreas: Bioética y empresa, Nutrición y Salud, Seguridad alimentaria. Los temas de trabajo a desarrollar con las becas que se convocan deben estar encuadrados en investigación básica, epidemiológica, clínica o tecnológica en el campo de la alimentación, la nutrición y la salud así como la bioética. Podrá ser director del trabajo cualquier doctor con vinculación permanente al centro de investigación en que se realiza el proyecto, que forme parte del equipo de investigación del mismo, y que acredite financiación para la ejecución del proyecto.
**Plazo:** 14-09-2002

# ikastaroak / cursos

## LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARI-PRESTAKUNTZAKO KURTSOA
## CURSO DE TÉCNICO TITULADO SUPERIOR EN PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES

**Adegi**
Telefonoa: 943 309030
mantona@adegi.es
www.adegi.es

**Eskakizun.:**
-Enpresaburuak eta zuzendariak.
-Ikasketak amaitu berri dituzten unibertsitateko tituludunak.
-Enpresa-jarduera honekin erlazionatutako profesionalak.
**Iraupena:**
Urritik maiatzera.
**Ezaugarr.:**
Kurtso honek batez ere orientabide praktikoa eta profesionala eskaintzen du. Horretarako, parte-hartzean oinarritutako metodologia erabili, kasu errealak azaldu eta esperientzia berritzaileak ezagutuko dira unibertsitateko irakasleen eta arlo honetako profesionalen eskutik. Parte-hartzaileak elkarrizketa pertsonalaren bitartez aukeratuko dira.
**Epea:**
2002-09-30

**Adegi**
Teléfono: 943 309030
mantona@adegi.es
www.adegi.es

**Requisitos:**
-Empresarios y directivos.
-Titulados universitarios que hayan finalizado sus estudios recientemente.
-Profesionales relacionados con esta actividad empresarial.
**Duración:**
De octubre a mayo.
**Contenido:**
Este curso ofrece una orientación eminentemente práctica y profesional, con metodología participativa, exposición de casos reales y acceso a experiencias innovadoras y novedosas a cargo de profesores universitarios y profesionales del tema. La selección de los participantes se realizará a través de una entrevista personal.
**Plazo:**
30-09-2002

## KULTURETXEAREN IKASTAROAK
## CURSOS DE LA CASA DE CULTURA

**Manuel Lekuona Kultur Etxea**
Tlf.: 943 376181/2
gazteinfo@lasarte-oria.org

**ARGAZKIGINTZA**
Erretratua II + Ukitu digitala
(urriaren 7tik abenduaren 23ra)
Ikastorduak: astelehen, asteazken eta ostiraletan, 18:00etatik 20:30era.

**ARETO-DANTZAK**
Hirugarren maila
(irailaren 24tik abenduaren 19ra)
Ikastorduak: astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara.

**ZUREZKO TAILUAK**
Lantegia
(urriaren 3tik abenduaren 19ra)
Ikastorduak: astelehen eta ostegunetan, 18:00etatik 21:00etara.

**Matrikulatzeko epeak:**
2002ko irailaren 9tik 20ra.

**Izena emateko lekua:**
Gazteentzako Informazioaren Udal Bulegoa (Manuel Lekuona Kultura Etxeko bigarren solairuan), astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**Matrikula-sariak:**
Gazte errold. (15-30 urte): 30 euro.
Heldu errold. ( >30 urte): 58 euro.
Erroldatu gabeak: 96 euro.

**Casa de Cultura Manuel Lekuona**
Tlf.: 943 376181/2
gazteinfo@lasarte-oria.org

**FOTOGRAFÍA**
Retrato II + Retoque digital
(7 octubre - 23 diciembre)
Horario: lunes, miércoles y viernes (18:00 a 20:30 h.).

**BAILES DE SALÓN**
Tercer nivel
(24 septiembre - 19 diciembre)
Horario: martes y jueves (19:00 a 21:00 h.).

**TALLA DE MADERA**
Taller
(3 octubre - 19 diciembre)
Horario: lunes y jueves (18:00 a 21:00 h.).

**Plazos de matriculación:**
9 al 20 de septiembre de 2002.

**Lugar de inscripción:**
Oficina Municipal de Información Juvenil (Segunda planta de la Casa de Cultura Manuel Lekuona) de lunes a viernes de 11:00 a 13:00 h. y de 17:00 a 20:00 h.

**Matriculas:**
Jóvenes (15-30 años) emp.: 30 euros.
Adultos ( >30 años) emp.: 58 euros.
No empadronados: 96 euros.

Casa de Cultura Manuel Lekuona Kultur Etxea